BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

5647

46/2011 EBAZPENA, azaroaren 8koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena; honen bitartez, Legutioko (Araba) Recticel Ibérica SL enpresaren instalazioen Kanpo Larrialdietako Plana indarrik gabe uzten duen Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakia argitara dadila xedatzen da.

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2011ko azaroaren 8an egindako bileran, Legutioko (Araba) Recticel Ibérica SL enpresaren instalazioen Kanpo Larrialdietako Plana indarrik gabe uzten duen erabakia hartu zuen. Orain, behar den publikotasuna emateko, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Legutioko (Araba) Recticel Ibérica SL enpresaren instalazioen Kanpo Larrialdietako Plana indarrik gabe uzten duen erabakia –ebazpen honen eranskin modura datorrena– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 8a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
M.ª JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAK AZAROAREN 8AN EMANDAKO 46/2011 EBAZPENARENA.

LEGUTIOKO (ARABA) RECTICEL IBÉRICA SL-REN INSTALAZIOEN KANPO LARRIALDIETAKO PLANA INDARRIK GABE UZTEN DUEN ERABAKIA.

Legutioko (Araba) Recticel Ibérica SL enpresaren instalazioek badute Kanpo Larrialdietako Plana, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko irailaren 13ko Erabakiaren bidez onartua, izan ere, uztailaren 16ko 1254/1999 Errege Dekretuan jasotako arautegiari eragiten baitio.

Instalazio horiek behin betiko ixteko Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailetik jakinarazpena jaso da, Herrizaingoko sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak aurretik hala erabakita.

ERABAKIA

«Lehenengoa.– Legutioko (Araba) Recticel Ibérica SL enpresaren instalazioen Kanpo Larrialdietako Plana indarrik gabe uztea, izan ere, enpresa, instalazioak desagertzeagatik, kanpoko larrialdietako plana izan beharretik salbuetsita baitago; plan hura Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko irailaren 13ko Erabakiaren bidez onartu zuen (urriaren 4ko EHAA, 189. zk.).

Bigarrena.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Idazkaritzak erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua emango du».